






ALEA

arabako aldizkaria

MENTXU RAMILO ARAUJO

**"EMAKUMEEN ISTORIO EDER
ASKO DAUDE WIKIPEDIAN"**



AURRERA BAINO EZ

ATZERAPAUSORIK EZ

EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA



Jarduerei buruzko informazioa:
vitoria-gasteiz.org/berdintasuna



ALEA 229

2020-03-06 OSTIRALA

AZALEKO IRUDIA:
ESTITXU UGARTE.

Aurkibidea

- 4 **Sakonean.** Gardelegiko zabortearen etorkizuna, aztergai.
- 10 **Elkarrizketa.** Mentxu Ramilo Araujo, Wikiemakumeok sareko dinamizatzailea.
- 14 **Iritzia.** Oier Llinas Villasante, 'Farolak eta esklaboak'.
- 16 **Sarea.** #Koronabirusa.
- 17 **Irudia.** Entitateak, Arigune bilakatzeko bidean.
- 18 **Gizartea.** Koronabirusak sortutako egoerari aurre egin nahian.
- 19 **Gizartea.** Martxoak 8, emakumeak kalera.
- 20 **Ekonomia.** Tuestako tomate hidroponikoen ustategiak kezka sortu du.
- 22 **Datuak eta laburrak.**
- 23 **Kultura.** Euskara Ibiltaria erakusketa zabalik da Oihanederren.
- 25 **Kolaborazioa.** 'Umeen genitalak', Emaize.
- 26 **Sukaldaritza.** Porru erreka gaztinekin, Museo del Organo.
- 28 **Denbora-pasak.**
- 30 **Agenda.**

Bultzatzaileak



berria goiena

Argitaratzailea

Arabako Alea Komunikazio Taldea

Zuzendaria

Aritz Martinez de Luna

Erredakzioa

Anakoz Amenabar

Mirian Biteri

Esti Lanao

Estibx Ugarte

Mikel Buruaga

Komertziala

Erlantz Anda

Inprenta

GERTU Inprimategia

Tirada: 2.100 ale

EGOITZA NAGUSIA

Antonio de Sucre 1, behea

01003 Gasteiz (ARABA)

Tel.: 945 71 60 09

info@alea.eus

PUBLIZITATEA

publizitatea@alea.eus

Tel.: 695 63 28 62

HARPIDETZA

harpidetza@alea.eus

Tel.: 945 71 60 09

Lege Gordailua: VI-32-2015

ISSN: 2386-8961

ALEA aldizkaria harpidetza bidez banatzen da, urteko 55 euroan.

Informazio gehiago: www.alea.eus/harpidetzak

ALEAK ez ditu bere gain hartzen IRITZIA sailean edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Asteko kolaboratzaileak: Oier Llinas, Emaize, Museo del Organo, Jon Rejado.

Laguntzaileak



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



Zabortegian, erabakiak azkartze bidean

Zaldibarko hondakindegia ren ezbeharraren ondorioz, Gasteizko Gardelegiko azpiegiturak hondakin gehiago har ditzake. Arabako enpresek Bizkaira bidaltzen zuten zaborra hartuta bakarrik, 2030. urtea baino lehen bete liteke. Testua: **Jon Rejado**.



Gasteizko udal zabortegia albiste bihurtu da, Zaldibarko hondakindegia ez beharra dela eta. Zeharka, oraingo honetan. Gardelegitik gertu dagoen azpiegiturak har ditzake enpresek Bizkaira eramaten zituzten hondakinetako batzuk. Gasteizko Udalak datu bat eman du, aukera horri neurria emateko: Arabako enpresek

23.000 tona zabor bidaltzen zituzten urtean Zaldibarrera, Gardelegira eramatea baino merkeagoa zelako. Ikusteke dago nora eramango dituzten hondakin horiek, baina egoerak Gasteizko zabortegiaren etorkizunari buruzko eztabaida hauspotu du.


Ez dago jakiterik Zaldibarren bota ezin dituzten hondakinetatik zenbat helduko diren Gasteizera. Gaur egungo araudiaren arabera, Gardelegiko zabortegiak Arabako gaiak baino ezin ditu hartu. Edonola ere, 23.000 tonako datuak balizko arazo bat ipini du mahaian: kopuru hori Gardelegik urtean jasotzen duenaren ia laurden bat da. Are, egunotan emandako informazioaren arabera, zabortegiaren edukiera guztiaren %3a dira 23.000 tonak. Zenbat laburtu daiteke zabortegiaren biziraupena, urtean ia 100.000 tonatik 123.000ra pasaz gero? Neurririk aurreikusten al dute administrazioek?

Arabako Foru Aldundiak 2030ra arteko biziraupena aurreikusi zion hondakindegia 2018an. Orduan onartu zuen 2030ra arteko Hiri Hondakinen Prebentziorako eta Kudeaketarako Plana, eta Gasteizko zabortegiak hondakinak hartzeko gaitasuna "oso


1975. urtean sortu zuten Gardelegiko zabortegia, Gasteizko mendateko magalean. JON REJADO



1984



1991




Satelite bidezko irudietan ikus daiteke zabortegiak urteetan zehar izandako bilakaera. EUSKO JAURLARITZA -- GEO EUSKADI

handia" zuela ondorioztatu zuen. Edonola ere, soilik Arabako enpresek Zaldibarrera bidaltzen zuten zaborra hartuta, zazpi urtean bete daiteke, egunotan ezagutarazi dituzten datuen arabera.

Inbertsioa, araudia betetzeko

Administrazioak inbertsio handia egiten ari dira Gasteizko zabortegian azken hiru urteotan, azpiegiturak 2015eko Ingurumen Baimen Integratua bete dezan. Guztira 10 milioi euro aurreikusi zituzten: hondakinak hartzeko espazioak zigitatzeko, libiatuak tokian tratatzeko, biogasa hartzeko sistema egokitzeko... Lan horiek lan egiten jarraitzeko beharrezko lanak zituen, baina biziraupena luzatzeko lanak ere buruan dituzte Gasteizko Udalak, Arabako Foru Aldundiak zein Eusko Jaurlaritzak.

Elena Moreno Eusko Jaurlaritzako Ingurumen sailburuordeak iragarri du proiektu pilotua dutela buruan: zabortegien meatzaritza, zabortegiaren eremu zaharrean. Teknika horren bitartez duela hamarkada batzuetako zaborra atera eta birzikla daitekeena berreskuratuko lukete, tokian bertan. Saiakera ondo ateraz gero, bi helburu erdiesten lagunduko die administrazioei: batetik, birzikla daitezkeen gaiak berreskuratuta espazio gehiago sortzea; bestetik, gaur egun eremu zaharrean gai toxikoekin dauden arazoak zuzentzea, lindanoarekin dagoena kasu.



2001



2010



2019

Neurri horien aurrean hainbat elkartek eskatu dute lan horiek guztiak balia ditzatela Gasteizko zabortegiko amaiera bideratzen hasteko. "Zabortegiaren biziraupena edo hedadura handitzeak ez du zentzurik; Europak agintzen duenaren kontra doa", hausnartu du Andres Illana Ekologistak Martxaneko kideak. Administrazioek, ordea, "ardatz" izaera aitortzen diote hondakindegia.

45 urteko historia

Azpiegitura urte gutxian bete zen. 1985. urterako Udalak hori handitzea onartu zuen. Horretarako errepidea bera mugitu zuen, zabortegia ekialderantz zabaltzeko. Hiri hondakinez gain, industriarenak ere jaso zituen. Ordea, horren gaineko kontrola ez zen findu 1990eko hamarkadaren bigarren erdira arte. Orduan, zaintza indartzearekin batera, laborategi bat jarri zuten





Gardelegiko zabortegia Gasteizko Mendietan kokatzen da, hirigunetik kilometro gutxira. IREKIA - MIKEL ARRAZOLA

Gasteiz Zero Zabor elkarateak 2016an eginiko ekintza. GASTEIZ ZERO ZABOR

Gardelegitik heldu zela. "Orduan antzeman bazuten izan zen ura aztertzeak irizpideak aldatu zituztelako", azaldu du Andres Illanak. "Hau da, 2013an detektatu izanak ez du esan nahi aurretik ez zegoenik".

Iazko irailetik martxan dago lindanoa Zadorrara ez heltzeko azpiegitura, 2015eko Ingurumen Baimen Integratua betetzeko lanei esker. Aurten, zein etorkizun gertuan, lan gehiago aurreikusita daude Gasteizko zabortegian. Bada, lan horiek azpiegituraren itxiera bideratzen hasteko izan daitezela eskatu dute hainbat elkarte, errealitate berriak sor dezakeen testuingurua baliatuta. ■■■

hondakinak tokian bertan aztertu eta gai toxikoak antzemateko.

Milurteko berriarekin batera azpiegitura handitzeko beharra zegoela hausnartu zuen Udalak. Orduan bideratzen hasi ziren lanak, eta, horrekin lotuta, aldaketa esanguratsua heldu zen: eremua handitzeko Ingurumen Baimen Integratua lortu behar izan zuen. Baimen horren bitartez Jaurilaritzak baldintzak ezarri zizkion azpiegituraren jabeari, Gasteizko Udalari. Udala jabea bada ere, FCC eta Yarritu enpresek kudeatzen dute zabortegia. Kontratua 2024an amaituko da.

Ingurumen Baimen Integratua aitortu zitetenerako, ordea, hondakin tona asko pilatua zeuden Gasteiz hegoaldean. Ustez obra hondakinak eta arriskurik gabekoak ziren guztiak, zabortegia horretarako prestatuta baitzegoen. Ordea, zabortegiko eremu zaharrean lindanoa antzeman zuten. Kutsatzaile hori Zadorran agertu zen, eta Ebroko Ur Konfederazioak ebatzi zuen



"Hondakinen gaiak erantzun bateratua behar du"

IOSU ARANBARRI GASTEIZ ZERO ZABOR ELKARTEKO KIDEA

Zaldibarren gertatutako ezbeharrak hausnarketa sakon baterako oinarria jarri du. Hala nabarmendu du Gasteiz Zero Zabor elkarteak. Bizkaiko gertaerak agerian utzi du Euskal Herriko ekoizpen sistemaren ahultasuna: Europak agindutako ekonomia zirkularretik urrun dago. Izan ere, hondakinen kudeaketa ekoizpen katearen azken kate-begia dela gogorarazi du elkarteak. Iosu Aranbarrik (Gasteiz, 1979), Gasteiz Zero Zaborreko kideak, gaiari buruzko adostasun politikoaren beharra aldarrikatu du, neurriak hartzen hasteko, gertuko azpiegituretatik bertatik: Gasteizko zabortegeari itxiera data jarritz, besteak beste.

Zabortege handi bat izateak hondakinen kudeaketa baldintzatzen du?

Erabat. Hondakinen hierarkian bost maila daude. Garrantzi handitik txikira: prebentzioa, berrerabilpena, birziklapena, hondakinei energia balio bat eman (errautsea kasu), eta, azkenik, zabortegetara bota. Orain arteko Arabako hondakin politikek azken koskan jarri dute arreta, gehien bat; Europak jarritako azterketa bost batekin gainditzearen alde egin dute apustu. Aurtengo ebaluazioan behintzat ez gara helburuak lortzeko kapazak izan, eta nork daki 2035eko emaitza zein izango den, aldaketak egiten ez badira. Bizkaian eta Gipuzkoan egoera bertsua da. Prebentzioan, berrerabilpenean eta birziklatzean jarri behar da



J. REJADO

indarra. Administrazioak horren motorra izan beharko luke.

Apustu hori egin daiteke zabortegeien biziraupena luzatuko bada?

Zergatik ez da gehiago birziklatzen? Ekonomikoki errentagarriagoa delako zabortegeira botatzea birziklatzea baino. Hala den bitartean ez da ezer aldatuko. **Iñaki Arriola Ingurumen sailburuak hondakinei tasa bat ezartzeko aukera aipatu du.** Nafarroan hondakinen gaineko tasa dute, dagoeneko. Tasen bitartez enpresak behartu ditzakezu pentsatzeko modua aldatzera. Enpresek diruan neurtzen dituzte erabakiak. Beraz, produktu bat ekoiztea garestituko bada hondakinen kudeaketagatik, interes handiagoa izan dezakete hondakinak urritzeko. Halere, hori baino garrantzitsuagoa da plan bat izatea: helburu argiak. **Confebaskeko presidente Eduardo Zubiaurrek zabortegeiak eskatu dizkio Arriolari, tasa jarri beharrean. "Enpresa sarea eteteko" arriskuaz ohartarazi du.** Gauza asko esango dituzte. Lehiakortasuna galdu dezaketela, kostuak handituko

direla, enpresek alde egingo dutela... Esanguratsua da. Produkzio sistemaren azken koskari buruzko eztabaida hasi eta berehala, enpresariak hausnartu dute Euskal Herriko produkzio sistema kolokan gera daitekeela. Confebasken erantzuna egoera aldatu behar den seinale da.

Nola alda daiteke?

Politikariak hori kudeatu beharko dute. Adostasun politikoa behar da, eta hori lortzea erronka handiagoa da adostasun teknikoa lortzea baino. Administrazioak dirutza bideratu beharko du egoerari buelta emateko.

Zertara bideratuta?

Aipatu hondakinen kateko goiko kosketan indarra jarriko badute, enpresek diru laguntzak eskatuko dituzte: ikerketarako, berritzeko... Lanpostu berriak sortuko dira horren eskutik, eta hor industria sarea berregituratzeko aukera egongo da. Industria eta nekazaritza jasangarria egotea da helburua. Hori ezin da egun batetik bestera lortu, baina ekonomia zirkullarren norabidea hartu behar dute, eta hau une aproposa da.

Zergatik da aproposa unea?

Europak aurtien egingo du hondakinen kudeaketaren egoeraren argazkia, eta helburuak ez badira betetzen zigor ekonomikoak ezar ditzake. Txarto gaude? Bai. Aldatu daiteke? Bai. Une aproposa da? Bai. Lehen mailako arazo sozial bat da, eta erantzun bateratua eman behar zaio, ideologiak ideologia.

"Wikipedian ez dagoena ez da; eta emakumeak ez gaude"

MENTXU RAMILO ARAUJO WIKIEMAKUMEOK SAREKO DINAMIZATZAILEA

"Haserrealdi" baten ostean erabaki zuen Mentxu Ramilok Wikipedian editatzeko arauak menperatu behar zituela, munduan bisitatuena den eduki askeko entziklopedian jasotzen ez diren ehunka emakumeen izenei izana emateko; egun, WikiEmakumeok sareari esker, 675 emakumeren biografiak daude ikusgai.

Testua: **Estitxu Ugarte Lopez de Arkaute**.

Dantzariak, idazleak, musikariak, kimikariak, irakasleak edota kirolariak. Arlo desberdinetan adituak diren eta izan diren emakumeen izenekin zerrenda luzea sortu du WikiEmakumeok sareak azken bost urteetan. Wikipedian genero-ikuspegia txertatzeko eta emakumearen presentzia urria handitzeko helburua du sareak, eta horren atzean egon da hasiera-hasieratik Mentxu Ramilo Araujo (Gasteiz, 1978). Auzolan horren dinamizatzaileak aitortu du ez dela lan erraza emakumeen biografiak eta eduki feministak saretzea: "Hegemonikotik gero eta gehiago urruntzen garen heinean, orduan eta gehiago handitzen da lupa, eta zalantzan jartzen dira emakumeen edukiak".

Zer presentzia dute emakumezkoek Wikipedian?

Wikipedian dauden emakumeen biografien datuak aldatu egiten dira wikipedien arabera. 305 wikipedia daude! Nik esan ohi dut hamar biografiatik bi baino gutxiago emakumeenak direla, eta hamar argitaratzailetik bi baino gutxiago emakumeak gara. Baina Women in

Red, Wikidone, Wikimujeres, Viquidones, Cuarto Propio, Wikiesfera, WikiEmakumeok, Wikipedia España eta Euskal Wikipedista elkarte bezalako proiektuei esker, oso pixkanaka gutxituz doa arrakala. Emakumeen presentzia paritarioa dutenak asturiarra (% 52) eta galesa (% 51) dira. Asturiarrak itzultzaile automatikoak erabiltzen ditu, eta duten arrakala Asturiasko emakumeena da. Euskal Herrikoak emakumeen biografien % 17 ditu. Eta Espainiakoak %21.

Zer ondorio ditu genero arrakalak?

Oso uste zabaldua da interneten, eta beraz Wikipedian –nazioartean gehien ikusten den bosgarren web-orrialdea– ez dagoena ez da existitzen; bada, hor emakume asko daude ikusezin, eta gizonen gehiegizko ordezkartza dago.

Egoera horri aurre egiteko bultzatu zenituen

Wikiemakumeok sarea eta proiektua, ezta? Nola hasi zinen lan horretan?

Ekimena 2015ean sortu zen, haserrealdi baten ostean; Wikipediarako nire lehen testua sortu nuen, hainbat egun lan egin ondoren, eta oso denbora gutxian ezabatu zidaten. "Eraso" birtual



Mentxu Ramilo gasteiztarra Wikiemakumeok proiektua garatzen dabil 2015. urtetik. ESTITXU UGARTE

horrek balio izan zidan jabetzeko Wikipediak, edozein espazio presentzial edo birtual bezala, bere funtzionamendu-arauak dituela, eta ezagutu behar dituzula edo ez duzu zereginik. Espazio meritokratiko bat da Wikipedia; beste batzuek testuak nola egiten dituzten ikusten duzu, eta hobetzen laguntzen duzu. Eta pixkanaka-pixkanaka editatzen hasten zara, eta aske sentitzen zara, zerotik eduki berriak sortzera animatzen zaren arte, beharrezkoak diren gakoak kontuan hartuta.

Zenbat urte igaro dira Wikiemakumeok martxan jarri zenuenetik? Nola izan ziren lehen urrats horiek?

2015eko azaroan, I. Editatona antolatu genuen Gasteizen, hiriko erreferentziazko emakumeen biografiak sortzeko, Udaleko Berdintasun Zerbitzuaren eta Sareguneren laguntzarekin. Ordutik, hilero, wikipaketak eta edizio tailerrak egin ditugu. Zenbait herritan talde egonkorrak daude, hala nola Gasteizen –Sorginenean–, Leioan –Zientzia eta Teknologia Fakultatean, Marta Macho Stadlerren laguntzarekin–, Donostian –Berdintasunerako Masterraren eskutik, EHUKo Ibaetako campusean–, Etxebarrin –Inurtxi

Elkartek bultzatuta eta Sonia Franciscok dinamizaturik eta berriki Durangon –Marisa Barrenaren bultzadarekin–.

Sare asko josi behar izan dituzue?

Wikipedia editatzea ez da zeregin hutsala. Ahalegina eskatzen du. Harrapatu edo berehala aspertzen zaitu. Badira ere editatzen erlaxatzen diren wikilariak, kar, kar. Beti da funtsezkoa sareak ehuntzea, jendea Wikipedia deskubritzera animatzea, normalean jendeak bertan informazioa bilatzen du, baina ez daki editatu daitekeenik eta horrekin lotutako beste proiektu asko daudela (irudiak, aipuak, Wikidataren datu-basea ...).

Emakumeen wikiesanak ere bildu dituzue, ezta?

Proiektu honetan Make Irigoien da burua! Kontua da liburuetan, komunikabideetan eta beste argitalpen batzuetan biografiatutakoek hitzez hitz esan dituzten esaldiak web-orri batean jasotzea, aipamena zein iturritik atera den gehituz. Esan horiek helburu pedagogikoekin erabili daitezke, sare sozialetan partekatzeko, argitalpen baten kapitulu bat irekitzeko edo ixteko, edo testu batean aipatzeko, besteak beste. Gainera, espazio

honetan lan giroa lasaia goa dago, wikiesanen orrialdeak ez ohi dituztelako zalantzan jartzen.

Edozeinek igo ditzake edukia Wikipediara edo ezagutza bereziak behar dira?

Wikipedia bakoitzak bere arauak ditu. Badira zorrotzagoak, hala nola katalana, ingelesa edo espainola; eta malguagoak, Euskal Herrikoa bezala. Emakume baten biografia bat espainieraz editatzeko, sei erreferentzia fidagarri edo gehiago izan behar ditugu –ez du blog edo webgune propiorik balio–, artikulua modu neutroenean eta adjektibo kalifikatzailerik gabe idatzi behar da, ezin da jatorrizko iturriko informazioa hitzez hitz kopiatu, sintesi bat egin... eta behatzak gurutzatu, pertsona hori sustatzen ari garela uste duen norbaitek azter ez dezan.

Kontrol zorrotza dago, beraz?

Editatzen hasi nintzenean ez nuen ulertzen zergatik zen hain konplikatu bizirik dauden pertsonen biografiak egitea. Orain ulertzen dut: badira informazio gordailu kolaboratibo hau gaizki erabiltzen dutenak, pentsatzen dutenak bere orria hor edukitzeak ospe handiagoa ematen diola. Badira bere biografia propioa ere egiten dutenak. Horregatik, pertsona baten ibilbidea amaitzen denean errazagoa da biografia itxi bat sortzea. Bestela, pertsona batek sari bat edo lehiaketa bat irabazten duen bakoitzean, bere orria eguneratu behar da. Euskarazko Wikipedian askoz malguagoak dira kontu horrekin.

Ingurune misoginoa da Wikipedia?

Bizi garen gizarte heteropatriarkalaren isla da Wikipedia. WikiEmakumeok pedagogia pixka bat txertatu nahi du hasiberrientzat nahiko aurkakoa eta matxista den ingurune batean –eta hori kontuan izanik Wikipediaren arau bat dela hasiberriei kosk ez egitea–. Edozein pertsonak editatu ahal duela esaten da, baina segun gaia zer den: ez da gauza bera datuak gehitzea edo informazio berria sartzeko. Halaber, ez da erraza emakumeen biografiak edo eduki feministak sartzeko; izan ere, hegemonikotik zenbat eta gehiago urrundu –zuria, burgesa, gizonetza, heldua, heterosexuala–, orduan eta gehiago handitzen dira lupak, eta zalantzan jartzen dituzte emakumei buruzko edukia.

Feminismoaren ekarpenak ikusarazteko balio du Wikiemakumeok egitasmoak?

Jakina! Askok dago egiteko arlo honetan ere! Eta baita dauden edukiei genero ikuspegia txertatzea ere. Durangoko Jardunaldi Feministetan emakume emagin batek esan zidan bere

diziplinaren edukiek joera androzentriko handia zutela. Eta Wikipedian gizonari eta emakumeari buruz gaztelaniaz idatzitako artikuluek alderatzea ariketa ona da egiaztatzeko oraindik egiteko asko dagoela... Euskaraz, halere, emakumei buruzko artikuluek kalitate handiagoa dute gizonenak baino!

Zer egiten duzue wikiemakumeek?

Editatzea, ezagutzak partekatzea, emakume ikusezinak deskubritzea, emakume editoreak ezagutzea, askotariko gaitasun digitalak praktikan jartzea –informazioa bilatzea, iturri fidagarriak bereiztea, idazten duguna aipatzea, informazioa sintetizatzea, testuak itzultzea, zuzentzea–.

Kolektibo informala eta sakabanatua gara, eta hilero biltzen gara hainbat herritan. Badira ere *wikikedaren* egunean bakarrik editatzen duten lagunak, eta badira ere Inma, Gasteizko wikilaria bezalakoak, editatzeko konpromiso handia dutenak: gutxienez bi biografia hilean. Bera eta Marisa Barrena bi fitxaketa zoragarri dira!

Zenbat lagunek parte hartzen dute?

Wikipedia editatzen ikasteko hiruzpalau saio egiteko prest dauden gutxienez lau lagunentzako taldeak sortzen diren lekuetan tailerrak egiteko prest gaude; gero, hilero, *wikikedak* egiteko eta bere kabuz editatzen jarraitzeko eta emakume gehiago sartzeko konpromisoa hartuz gero. Egun, wikitalde guztien artean, 30 lagun inguru izango dira editatzen; eta behin bakarrik parte hartu duten lagunak berrehun inguru izango dira.

Zenbat emakumeren biografiak igo dituzue?

675 guztira. Eta hobetu ditugun biografiak ez ditugu zenbatzen, baina asko dira.

Zaila izan da emakume hauen inguruko informazioa biltzea? Zeintzuk nabarmenduko zenituzke?

Oro har, zaila da erreferentzia fidagarriak aurkitzea gaztelaniazko biografien kasuan. Euskaraz, berriz, ez dago arazo hori. Aipatuko nuke Marisa Barrena eta Inma sekulako lana egiten ari direla emakume erraketistekin, euskaraz eta gaztelaniaz. Inprimatzaile eta editore bat ere badago, Zoila Askasibar, eta haren inguruan ikerketa-lan zoragarria egiten ari dira! Josi Sierrak ere lan garrantzitsua egin du maistren inguruan... baina emakumeen istorio eder asko daude.

Wikipedian genero arrakala murrizteko lan asko dago oraindik egiteko?

Bai, asko dago. Egoteak, aipatuak izateak eta ikusgaitasunak duten garrantziaz kontzientziatu behar gara. Emakume askori galdetuko bagenie



Arkeologo gazteeekin Wikipedia editatzeko egindako hitzordu batean hartutako irudia. WIKIEMAKUMEOK

Wikipedian egon nahiko luketen, ezetz esango ligukete; emakume askok ere ez dute editatzen "hor idazteko inor ez direlako"... Ibilbide luzea falta zaigu oraindik buruzaletasunari eta autoestimuari dagokienez. Eta Wikipedia editatzea ere zeharkako modu bat da inork espero ez zuena egitea eta inork espero ez zuena izatea lortu zuten emakumeak aurkitzeko. Haiek ahal izan bazuten, guk ere egin ahal izango dugu! Hori bai, garrantzitsua da, baita ere, ohartzea emakume horiek beren helburuak lortzeko kostu handia ordaindu behar izan zutela; zailtasunei eta oztopoei buruz ez da ezer jasotzen, baina funtsezkoa da kontuan hartzea denak duela kostu bat.

Eta Araban, emakume ezezagun asko daude oraindik deskubritzeko?

Bai, ehunka, milaka! Askok dugu egiteko, baina asko egin dugu 2015eko azarotik hona WikiEmakumeok eta antzeko beste ekimen askorekin. ■■■

"EUSKARAZ, EMAKUMEEI BURUZKO ARTIKULUEK KALITATE HANDIAGOA DUTE GIZONENAK BAINO"

"WIKIPEDIA EDITATZEA EZ DA ZEREGIN HUTSALA. HARRAPATU EDO BEREHALA ASPERTZEN ZAITU"

"WIKIEMAKUMEOK EGITASMOAK PEDAGOGIA EGIN NAHI DU, MATXISTA DEN INGURUNE BATEAN"



150 urte
zure ondoan

www.mendiaoptika.eus

Faraoi eta esklaboak



OIER LLINAS VILLASANTE
KAZETARIA

Azkenaldian, iruditzen zait gero eta motxiladun gazte gehiago ikusten ditudala kaletik. Normalean bizikletetan mugitzen dira, baina badaude jadanik patinete elektriko famatueta gora eta behera dabiltzanak. "Ekonomia kolaboratiboan" lan egiten duten banatzaileez ari naiz, noski. Oinarria oso sinplea da: enpresak zerbitzu zehatz bat eskaintzen du eta langileak, modu autonomoan, beste zerbitzu bat ematen du. Horrela, bien artean kontsumitzaileari zerbitzu oso bat ematen diote. Teorian erraza dirudiena praktikan aldrebestu egiten da. Autonomo horiek ez dira libre izaten nahi bezain beste edo eurek nahiago dituzten ordutegietan lan egiteko. Ordea, euren puntuazio, salmenta kopurua eta antzeko hamaika aldagaitan oinarrituta aukeratzen dute noiz eta zein baldintzatan lan egin. Azkenean, euren soldata eta lanari dedikatutako ordu kopurua sistemaren menpe geratzen da, hasierako autonomia erakargarri hori ezerezean utziz.

Sistema hau ez da berria eta ez da bakarrik banatzaileen sektorean gertatzen. Europatik hain hedatuta dauden *free tour* deitutakoek modu berean funtzionatzen dute: konpainiak bezeroak erakartzeko marketin zerbitzu bat eskaintzen du, eta gida autonomoek tourra "jartzen" dute. Noski, konpainiak lortu duen bezero bakoitzeko gidek tarifa bat ordaindu behar dute, tour horretan irabazitakoa kontuan hartu barik. Gerta daiteke tarifetan ordaindu beharrekoa irabaziak baino haundiagoa izatea.

Europako Batasunak publikatutako azken Colleem txostenean dio "ekonomia kolaboratiboa" hedatuz gero, "aldaketa sakonak" egin beharko lirakeela lan eta ongizate sistemetan. Badirudi gure gizarteak ildo hau jarraitu lezakeela, deskribatutako plataformetan edo bestelako "mikrolanak" egiten dituzten pertsona kopurua gero eta handiagoa baita. Berez, sistemak, bere erroan, abantaila ugari ditu: etxetik lan egiteko aukera, nahierako ordutegia edukitzea, proiektu ezberdinak aldi berean kudeatzea eta abar. Hori bai, behar-beharrezkoa da langile autonomoak babesten dituen erregulazio sendo bat garatzea. Bestela, XXI. mendeko "ekonomia kolaboratibo" honek piramideak eraiki zireneko garaietara eramango gaitu: alde batean konpainia-faraoia eta, bestean, langile-esklaboak. ■

**BEHARREZKOA DA
LANGILE AUTONOMOAK
BABESTEN DITUEN
ERREGULAZIO SENDO
BAT GARATZEA**

30.000

ordu euren
artikidegora zaintzen

100.000

ordu berotoki leintzen

22.000

ordu erabakuntzen artetan
abartasunari aurrenean

200.000

ordu gure
errealitateari eraldatzeko

BIZI GUZTIKO jakinduria

Urteetako konpromisoa gure herriak eraldatzeko

MS EMAKUMEEN
NAGASITASUN
ERAKUNDA

araba  álava
Herri alderdiak alderdiarekin berri

SAREAN

@ESTITXUUGARTE

#Koronabirusa

Soka luzea ekarri eta ekarriko du hurrengo egunetan Txinan sortu eta Euskal Herrira ere zabaldu den Covid-19 izeneko koronabirusak. Euskal Herrian kutsatutako lehen bi kasuen artean Gasteizko Txagorritxu ospitaleko mediku bat egotea eta horren aurrean Osakidetzak hartutako babes neurrien inguruko salaketak zeresan handia ematen ari dira. ■



**HARRY
MARTXAN**
@harrymartxan

Hi medikua! Nahiz eta MIR-en porrot egin, @Gob_eus-ek behar zaitu, eta erraztasun guztiak emango dizkizu. Ekar ezazu zure mozorroa!!
#koronabirusa #denaondodabil #euskadi



**ANTTON
TELLERIA**
@antton_telleria

"Koronabirusa Euskal Herrira iritsi da baina ospa egin du etxebizitza prezioek izututa"
#didatoday



~M~
@aitzbeltz

Birusak dira distopietan gizadiarekin amaitzen dutenak. Noizko kapitalismoarekin amaituko duten birusen utopiak?
#Coronavirus
#Capitalvirus



BITOR
@bitoralonso

Badirudi gure osasun sistema ez dela saltzen ziguten bezain ona. Baina hau ez dugu koronabirusa heltzean deskubritu. Ondorio hori zita eskatu eta proba egin arte igarotzen diren 5-6 hilabeteetan atera izan dugu erabiltzaile askok.

M8

artxoak

EMAKUMEAREN

NAZIOARTEKO

EGUNA

 IRUDITAN



Entitateak, Arigune bilakatzeko bidean

Gasteizko hamazazpi entitatek agerraldia egin dute Oihanederren, udazkenean ospatuko den Euskaraldiaren hurrengo edizioaren harira, eta bere egituren barruan Ariguneak sortzeko aukera aztertzeko konpromisoa hartu dute. Ariguneak euskaraz aritzeko guneak dira, eta euskaraz hitz egiteko aukera bermatzen dute uneoro, entitate barruan edo herritarrekin duten harremanean. Datorren astetik aurrera, entitateek espazio horiek antolatzeke baldintzak dituzten aztertuko dute, barne lanketa propio baten bidez. Behin analisia eginda, eta baldintzak ematen badira, Euskaraldian izena emateko aukera izango dute. **Argazkia: E. Lanao.**



**Bidali zure
argazkiak testu
labur batekin:
erredakzioa@alea.
eus**



Egoera aldakorra den arren, momentuz ez dute salbuespenezko neurririk aurreikusi. ALEA

Erietxeak astindu ditu birusak

Ehun bat medikuren berrogeialdiak arazo handiak eragin ditu Gasteizko erietxeetan; aldi baterako langileak kontratatu behar izan dituzte koronabirusak sortutako ezohiko egoerari aurre egiteko.

ERREDAKZIOA GASTEIZ

Asteazkena bitartean, koronabirusaren hamahiru kasu positibo atzeman dituzte Araban. Eta, birusaren arrastoa eteteko helburuarekin, lagun horiekin kontaktuan izan diren dozenaka laguni jarraipena egiten ari zaizkie; besteak beste, osasun arloko ehun bat profesional bakartu dituzte, gehienak Txagorritxuko *zero* gai-xoari lotuta.

Azkeneko hiru kasu berrien arren, bi aurretik ere isolatuta zeu-

den pertsonak dira, lehendabiziko gaixoarekin edo jada atzemandako kasuetako batekin kontaktuan egoteagatik. Gaixotutako besteak ez zuen loturarik Txagorritxuko lehenengo kasuarekin; aurretik erietxean zegoen neumoniarekin.

Eusko Jaurlaritzako osasun sailburu Nekane Murgak asteazkenean jakinarazitakoaren arabera, gaixo guztiak egoera onean daude, eta "gertuko jarraipena" egiten ari zaizkie etxean bakartuta dauden lagunei.

Hala ere, ehun bat medikuren berrogeialdiak arazo handiak eragin ditu Osakidetzan: bai Txagorritxun, bai Santiagon eta baita osasun zentroetan ere. Aldi baterako langileak kontratatu behar izan dituzte azken egunetan, ezohiko egoerari aurre egiteko.

Prebentzio neurriak

Momentuz, Espainiako Osasun Ministerioak ez du salbuespenezko neurririk ezarri Gasteizen, hasiera batean eskolak bertan behera uztea edo telelana bezalako neurriak planteatu ziren arren.

Herritarrei zuzendutako irizpideetan, sintomak nabaritutaz gero –eztarriko mina, arnasa hartzeko zailtasunak, eztula...– edota koronabirus kasu ugariak egondako leku batean izan ostean, osasun zerbitzuekin harremanetan jartzea eskatu dute. Sintomarik izatekotan, etxean geratu eta 900-20 30 50 telefonora deitu behar da. Ez da, inolaz ere, Osasun Zentrora joan behar.

Feminismoa, iparretik hegora

Emakume Langilearen Nazioarteko Egunaren harira dozenaka ekitaldi antolatu dituzte Arabako emakumezkoek; borroka eta antolakuntza feminista aldarrikatuko dituzte igandean, Gasteiztik Kanpezura.

ESTITXU UGARTE LOPEZ DE ARKAUTE

Aldarrikapen berdina forma anitzetan islatuko dute Arabako emakumeek igande honetan hiriko kale eta herrietako plazetan. Feminismoaren aldarria eta berdintasunaren aldeko oihuak nagusituko dira Gasteiztik Kanpezura, herrialde osoan. Aurreko bi urteetan egindako greba orokor

arrakastatsuen ondoren, aurtengo Emakume Langilearen Nazioarteko Egunak mugimendu feministaren borroka eta antolakuntza izango ditu ardatz nagusiak.

Gasteizen, eguerdian, kate feminista egingo dute Loma Jeneralaren plazatik; eta ekitaldi nagusia arratsaldean izango da, San Anton plazatik 17:30ean irtengo

den manifestazioa hain zuzen. Aiaraldeko Mugimendu Feministak, berriz, eskualdeko mobilizazioa egingo du, 19:30ean, Amurrioko Gaztetxetik. Halaber, eskualdeko herri guztietan, eguerdian, kalejirak egingo dituzte.

Lautadan ere eskualdeko mobilizazioa egingo dute, Agurainen, 13:00etan; eta Arabako Errioxako ekitaldi nagusia, berriz, 12:30ean izango da, Lapuebla de Labarcán. Mendialdeko emakumeak ere mobilizatuko dira: 12:00etan Kanpezuko plazan eta 13:00etan Maeztuko okindegiaren aurrean kontzentrazioak antolatu dituzte. Gorbealdean, Aramaion, 12:00etan kontzentrazioa egingo dute plazan, eta 18:30ean manifestazioa. Halaber, Añanako Kuadrillan, Iruña Okan, Gaubean eta Zánbranan izango dira emakumeek antolatutako ekitaldiak.





Tomate hidroponikoen negutegi bat, Almerian. HISPALUS

"Kalte egingo digu negutegiak"

Euskal Herriko barazkigileak kezkatuta daude Almeriako Hispalus enpresak Tuestan aurreikusita duen tomate hidroponikoen negutegiarekin; Jaurlaritzak asmoari eman dion babesa salatu dute.

ESTITXU UGARTE LZ.DE ARKAUTE

Kezkatuta daude Euskal Herriko barazkigileak Almeriako Hispalus enpresak Tuestako industrialdean kokatu asmo duen tomate hidroponikoen hamazortzi hektareako negutegi erraldoiarekin. Sektoreak ez du begi onez ikusten Eusko Jaurlaritzak nekazaritzako industriaren proiektuari eman dion

babesa, eta salatu dute gainera egitasmoak tokiko produktoreak kaltetuko dituela.

Eusko Jaurlaritzarekin eta Hispalus enpresako buruarekin bildu dira azken hilabeteen Gipuzkoako eta Bizkaiko barazkigileak, ikusirik sektorearekin batzartu gabe aurrera egiten ari zela Almeriako proiektua. Batzarren ostean

mesfidantza eta kezka ez dira baretu produktoreen artean.

GILBE Gipuzkoako Lorazale eta Barazkigileen elkarteko lehendakari Jose Antonio Odriozolak ALEAri azaldu dionez, hartu-emanek ez dute nekazarien kezkak argitzeko balio izan: "Eusko Jaurlaritzak saldu nahi digu proiektu hori guretzat kalterik ekarriko ez balu bezala, eta garbi dago mesederik ez digula egingo eta kalte egingo digula".

Tomateak, Frantziara

Batetik, Tuestako tomate produktzioa kanpora bidaliko duela azaldu die Hispalus enpresako buruak nekazariei, baina Odriozolak auzian jarri ditu hitzok: "Eroskiko hornitzailea da enpresa, eta gaur egun Eroskiren bidez hemen saltzen duena baino gehiago ez duela salduko esan digu, Frantziara bidaliko dutela soberakina, Frantziako merkatura salto egiteko asmoarekin instalatuko dela... Hori ez dakigu egia den ala ez, baina egia dena da lehen Almeriako tomate bat zela eta orain Euskal Herrikoa izango dela; desberdina da".

Bestetik, Jaurlaritzak eta enpresak berak hitz eman diete Tuestan ekoiztuko dituzten tomateek ez dutela Eusko Label marka izango, baina Odriozolak uste du horrek ez duela zentzu handiegirik: "Hemendik bi urtera egiten dutena ez bada errentagarria eta labela egitea nahi badute, zer egingo dute? Debekatuko diete?".

Administrazioaren babesa

Hispalus enpresaren proiektua Eusko Jaurlaritzaren aldetik izaten ari den babesa ere zalantzan jarri du Gipuzkoako barazkigileen lehendakariak, eta daukan babesa ez lukeela izan behar uste du. Odriozolak azaldu duenez, Eusko

Jaurlaritzaren partetik justifikatu dute barruan egonda hobeto kontrolatuko dutela asmoa.

"Gai honen gainean –esan du Odriozolak– gu ez gaude kontra, ezin gara kontra egon; enpresa bat etorri da kanpotik eta Espejon ustiategi bat muntatu nahi du, ezin dugu ezer egin; baina Eusko Jaurlaritzaren babesa du, eta esan diote gainera zein den tokirik onena tomateak landatzeko. Aldiz, guk edo edozein ekoizle txikik arazoak besterik ez ditugu edozer gauza egiteko".

Halaber, kezka agertu du GIL-BEko lehendakariak enpresak sortuko dituen 60 lanpostu berrien harira. "Esaten dute 60 lanpostu sortuko dituztela aurreneko fase honetan, baina ez dute esaten zenbat suntsituko diren; eta gainera, 60 lanpostu sei hektareatan lan egiteko astakeria bat iruditzen

zaigu. Bestalde, ustiategi teknifikatua izango da; horrek emango dio lana zonaldeko jendeari?", galdetu du.

Hamazortzi hektarea hiru fasetan

Gaubeako ustiategiak sei hektarea izango lituzke aurreneko fase batean, baina hamazortzi hektarea arteko proiektua da, hiru fasetan. Urteko, laurogei kilo tomate metro koadroko ekoiztuko dituztela esan diete nekazariei. "Gipuzkoan urteko hogeiki kilo egitea asko da –azpimarratu du Odriozolak, negutegiaren tamaina adierazteko–. Dena den paperak dena aguanta-tzen du; inbertsioa eginda ere, horrek funtzionatuko al du?".

Proiektuan sartzeko eskaini diete tokiko ekoizleei, Odriozolaren esanetan, "kapitala sartzeko", eta Bizkaiko barazki kooperatiba batek bederen sartzeko asmoa du.

16.000

Tonak

Hortipor 2001n sortu zuen Telmo Rodrigues izeneko enpresariak Portugalen, eta 2016an zabaldu zuen Almeriara, Cultivos Hspalus izenarekin. Iazko abuztuaren inskribatu zuten BOEn Espejoko ustiatagia kudeatuko duen Cultivos Araba S.L. Egun, urtean, 16.000 tona tomate ekoizten ditu Hortipor enpresak.

Artium
araba
álava

ERAKUSKETA BERRIAK

Praktika artistikoak Euskal Herriaren 1977-2002 aldian
Zeru bat, hamaika bide

Gema Intxausti
Jendetzaren erdian,
atxiloketari begira

>2020.09.20

JARDUERAK

ARTISTAK GUREAN

Esther Ferrer

2020.03.18 19:00

ZINEMA ZIKLOA

Hasieratik. Zinema feministaren historioak

2020.03.07 18:00 *Las pioneras*

JARDUNALDIAK

Ikasgeletatik espazio publikora

2020.03.26, 27 goizez eta arratzaldeaz

FAMILIENTZAKO LANTEGIAK

Egia ala gezurra

2020.03.19, 20, 21 11:30 > 17:30

ARTIUM TXIKIA

3-5 urte bitarteko haurrentzat

Igandero 12:15 > 13:30

GOOD MORNING ARTIUM!

6-11 urte bitarteko haurrentzat

Igandero 12:00 > 13:30

GAZTEENTZAKO LANTEGIAK

Musika Hedatua. 12-18 urte bitarteko

Irudiaren atzetik doan soinua

2020.03.14 17:00 > 19:00

Argibide gehiago:
www.artium.eus

ESANAK



ZIORTZA KARRANTZA
PSIKOLOGOA
Iturria: Aiaraldea.eus

"Umeek hobeto ulertzen dute hilko direla, baina nerabeekin zailagoa da, amorrugatik"



NEREA MARTINEZ
MARTXOAK 3
Iturria: DNA

"Kontaktetan aldaketa izugarria izan da; egia judizialean, ordea, asko aurreratu behar da"



NEREA MELGOSA
BERDINTASUNEKO FORU ZUZENDARIA
Iturria: DNA

"Landa eremuko emakumeen lana eta ahalegina ikusgai egin nahi izan dugu"

ZENBAKITAN


Lekuak

Gasteizko Udalak lehenengo jantoki soziala ireki zuen astelehenean. Arkupeetako egoitza izandakoan eskaintzen da zerbitzua, eta 30 leku ditu. Udalaren gizarte zerbitzuek bideratutako pertsonei bazkari eta afariak emango zaizkie bertan. Baliabide ekonomiko nahikorik ez izateaz gain, bestelako arazoak dituzten pertsonei zuzendutakoa da, tartean, etxean janaria presatzeko aukerarik ez dutenentzat. Arkupeetako jantoki sozialak gizarte zerbitzuek eskaintzen dituzten menuen kopurua handitzen lagunduko du; 2019an 2.453 otordu eman zituen egunean, gosariak, bazkariak eta afariak batuta.



Urteak

Baskonia kopa gehien irabazi duen laugarren taldea da, Real Madrid edo Barça taldeen atzetik. Errege Kopari dagokionez, talde gasteiztarrek 1973ko apirilaren 12an jokatu zuen estreinakoz, eta duela 25 urte irabazi zuen bere lehenengo Kopa, Granadan, 1995eko martxoan. Garaipena lortu ostean, harmailetara igo zen taldea zaletuekin ospatzeko. Aurtengoan parte hartu ez badu ere, beste bederatziti final jokatu zituen 1995 eta 2009 urteen bitartean.



Denda

Euskara eta bere erabilera indarra hartzen ari da Araban, eta gero eta saltoki gehiagotara iristen ari da. Hori adierazi du Edurne Parro Aenkomerreko zuzendari kudeatzeailleak, Arabako 330 saltoki ezberdinei egindako inkestan. Establezimenduen %58,18k gutxienez euskara ulertzeko gai den pertsona bat du. Horrez gain, kasuen %26,20k bezeroentzako euskarazko arreta bermatzen du, eta %45 euskaraz errotulatzeko eta egiten dituzte kartelak.

Martxoaren 3ko memoria bizirik, 44 urteren ostean

Milaka pertsona bildu dira Gasteizen Martxoaren 3ko sarraskia-rengatik "justizia eta erreparazioa" eskatzeko. Urteroko manifestazioan presente egon dira, baita ere, urtarilaren 30eko greba orokorraren aldarrikapenak: "Bizitza, pentsio eta lan duinak, eta benetako aldaketa soziala". Tartean, lan istripuz hildako 14 langileak gogoan izan dituzte.



Urtarrilaren 30eko greba orokorraren aldarrikapenak ere presente egon dira. ALEA

Zinema feministaren historiari buruzko zikloa, Artiumen

Gasteizko Artium museoak *Hasieratik. Zinema feministaren istorioak* zikloa eskainiko du martxoaren 7tik. Zikloak hilean behin izango diren zazpi saio izango ditu, martxotik ekainera, urrian, azaroan eta abenduan. Diskurtso feminista oinarritzat hartuta, tartean, Chantal Akerman, Agnes Varda edo Mirentxu Loyarte emakume zuzendarien lanak hurbilduko ditu zikloak.

Zaharberritze lanak egiteko diru-laguntza berrezarri dute

Kultura Sailak 2013an ezeztatutako diru-laguntza lerro bat berrezarri du. Arabako toki entitateen elementu txikiak, baselizak eta eraikinak kontserbatu eta zaharberritzeko lanak sustatzeko helburua du diru-laguntzak, eta 54.756 eurokoa izango da. Beste bi dirulaguntza deialdi publiko bat ere plazaratu dute, bakoitza 100.000 eurokoa.



Euskararen hamaika ahots

'Euskara Ibiltaria' erakusketa aurkeztu dute Oihaneder Euskararen Etxean; Euskaltzaindiaren Euskararen Herri Hizkeren Atlasa izan du abiapuntua, eta euskararen aberastasuna erakutsi nahi ditu.

ESTI LANA O

Euskara ibiltaria erakusketa prestatu dute Oihaneder Euskararen Etxean. Euskaltzaindiaren Euskararen Herri Hizkeren Atlasa abiapuntu, euskararen aldakortasuna eta aberastasuna erakutsi nahi ditu, modu interaktiboan. Apirilaren 26ra bitartean dago ikusgai. Gainera, Euskaltzaindiaren webgunean ere ezagutzeko aukera izango da, eta ikastetxeentzako zein euskaltegiertzako bisita gidatuak antolatuko dituzte.

Erakusketa bost atal nagusitan dago banatuta: tokiak, materialak, argia eta soinua, natura eta bizitza. "Ikustekoa, entzutekoa, ukitzekoa, dastatzekoa eta usaintzekoa" da prestatutakoa, Andres Urrutia euskaltzainaren hitzetan. Izan ere, atal horietako bakoitzean atlaseko mapen hautaketa bat agertuko da, eta euskarak izan dituen aldaera horiek modu bisualean erakutsiko ditu. Horrez gain, erakusketak jokoak, animazioak eta entzungaiak bezalako tresnak erabiliko ditu, herri hizkeren aberastasuna erakusteko.

Euskararen aberastasunaz ohartzeaz gain, ikusleak hizkuntza-atlas bat zer den ikusteko aukera izango du, eta horren bidez, XIX. eta XX. mendeetako garaiko



Bost atal ditu erakusketak: tokiak, materialak, argia eta soinua, natura eta bizitza. E.L.



Ikastetxeentzako eta euskaltegiertzako bisita gidatuak antolatuko dituzte. ESTI LANA O.

bizimodua, gizartea eta ohiturak ezagutu: "Katebegi bat izatea nahi dugu, izan garenaren eta izango garenaren artean". Zentzu horretan, lekuan lekuko euskarak batzen dituen korpusa ezagutzera eman nahi du erakusketak; hots, Euskararen Herri Hizkeren Atlasa oinarri den heinean, egitasmoaren historia eta atlasa lantzeko erabilitako metodologia, materialak eta bestelakoak jakitera eman nahi dituzte: "Herriari eskaini dioguna herriarengandik jaso dugu, eta hori da erakutsi nahi duguna".

Herri Hizkeren Atlasa oinarri
Euskaltzaindiak 1980ko hamarkadan ikerketa baten bidez abiatutako proiektua da Euskararen Herri Hizkeren Atlasa (EHHA). Euskararen

aldakortasunaren berri ematen duen argitalpena da, eta dagoeneko hamar liburuki ditu. Euskal Herriko 145 inkesta-puntu aukeratu zituzten-Araban, herri bakarra- 319 berriemaile eta 2.857 galdera.

Beasainen antolatu zuten Atlasaren mamia gizarteratzeko erakusketa hau lenenengoz, 2015ean. Lau urteko ibilbidearen ondoren, 2019an, Euskaltzaindiak bere mendeurrena ospatu zuen urtean, *Euskara Ibiltaria* eraberritu zuen, eta baliabide berriak txertatu zituen.

Webgunean ere ikusgai

Euskara Ibiltaria erakusketa fisikoaz gainera, Euskaltzaindiak elementu berdinak islatzen dituen atal bat jarri du eskura bere webgunean (www.euskaltzaindia.eus/euskara-ibiltaria), eta hiru zatitan sailkatuta dago.

Alde batetik, erakusketaren azalpen nagusia ematen duen aurkezpen atal bat dago, lau hizkuntzatan: euskara, gaztelera, frantsesa eta ingelesa.

Beste alde batetik, jolas interaktiboen atala dago, mapekin eta irudiekin jolasteko aukera ematen duten lau botoirekin: *Euskal ahotsak*, *Euskararen unibertsoa*, *Hizkuntzaren aberastasuna* eta *Osatu atalez atal*. Hauek ere lehen aipatutako lau hizkuntzatan jolasteko aukera ematen dute.

Azkenik, erakusketaren panelak daude eskura, hasieran esandako bost gaietan banatuta, eta baita eremu bakoitzeko hizkeretan entzungai guztiak ere. ■

Martxoaren 20an 'Ttap' berritua!



'Gorabeherak'
websailarekin!

ttap

Irakurri, ulitu,
ikusi, entzun.

DOAN
Euskarazko aldizkari
digitala, deskargatu
astero zure mugikor
edo tabletan



Umeen genitalak

SEXUALITATEA



EMAIZE

Sexuen heziketa ardura partekatua dela behin eta berriz esan ohi dugu sexologok. Guk profesional moduan ikastetxeetan saioak egin ditzakegu haur eta gazteekin, baina badira gainditzeko zailak diren oztopoak lan horri beste eragileek behar bezala heltzen ez badiote. Horren adibide argia genitalen anatomia eta fisiologiaren inguruan aritu nahi dugunean aurkitzen dugu.

Nola azaldu zakila eta barrabilen parteak eta beraien funtzionamendua marrazki bat erakustean buelta ematen duten umeekin? Nola erakutsi aluaren kanpo itxuratik harago, lehen begiradan ikusten ez diren parteak badiorela eta berezko funtzioak dituztela begiak estaltzen badituzte?

Genitaletar aritzean ia talde guztiak nazka sentitzea ohikoa ez den arren, gerta daiteke –eta ez da arraroa– ikasleren batek tripako mina edota zorabio sentsazioa nabaritzea, alua zein zakila azaltzean.

Zer dela eta senti dezake hainbesteko nazka pertsona batek gorputz atal batez aritzean? Gure genitalak digestio-aparatua ikastea baino zailagoa edo nazkagarriagoa izatea ulerkorra da? Ez ahaztu digestio-aparatua aritzean kakaz eta pixaz arituko garela, besteak beste.

Genitalekiko nazkaren gakoa hezkuntzan eta hizkuntzan dago, eta bi horiek helduon bitartez



SKOLAE

jasotzen dituzte umeek. Txikitandik ingurukoek erabiltzen dituzten hitzak ikasiko dituzte eta guk genitalak aipatzen ez baditugu zaila izango zaie ikastea. Baina aipatuz gero "atal intimo", "erdikoa" eta horrelakoak erabiltzen baditugu, argi ez hitz egiteko eufemismoak erabiltzen baditugu, benetako izena ezin zaiela eman ikasiko dute eta zerbait aipatu ezin denean, debeku bihurtzen da.

Ondorioz, ez aipatzera ikasteaz gain, gorputz atal horrekiko errefusa izango dute. Debekuak gure genitalen existentzia estaliko du; bere izena eta izana

ZER DELA ETA SENTI DEZAKE HAINBESTEKO NAZKA PERTSONA BATEK GORPUTZ ATAL BATEZ HITZ EGITEAN?

arrotz bihurtuz, eta gure osasuna zaindu behar dugula argi badugu ere, zaila izango da haurtzarotik genitalen osasuna egoki zaintzea dauzkaten ezaugarri eta beharrak ezagutzen ez baditugu.

Zenbait haurrek sentitzen duten nazka kudeatzeko –eta uste duguna baino gehiago ematen da hau–, ezinbestekoa da helduon jarrera aldatzea. Gu gara berauen eredu; beraz, ume eta gazteekin sexualitateaz hitz egitea ez da soilik gaztetan planeatu gabeko haurdunaldiez, infekzioez eta kondoiar aritzea.

Gorputza ezagutzen lagunduko bagenie, genitalak bestelako atalak bezala izendatuz, onartuz joango lirake. Onarpena da gure gorputza maite eta zaintzeko bidea. Eta, aldi berean, arriskuei aurre egiteko giltzarik garrantzitsuenak. ■■■

—emaize—

SEXOLOGIA ZENTROA
CENTRO SEXOLÓGICO

Bueno Morreal 1, behea - 01001 Vitoria-Gasteiz
945 265 896 • emaize@emaize.com • www.emaize.com

Porru erreak gaztainekin

ENEKO RODRIGUEZ

MUSEO DEL ORGANO

Museo del Organo jatetxe begetarianoan hilero Arabako produktu bat ikusarazteko saiakera egiten dugu. Hilabete zehar, aukeratutako produktua egunero aurkitu daiteke gure menuetan, era desberdinetan prestatuta.

Baina produktuez gain, ekoizleek egiten duten lana ere eman nahi dugu ezagutzera. Gure kolaboratzaileak Arabako Bionekazaritzako sareko kideak dira, eta nekazaritza ekologikoaren alde egiten dute apustu.

Otsailean zehar, porrua izan dugu protagonista; eta kasu honetan, Arrik ekartzen dizkigu porruak, Gopegiko Padura Baratzatik.

Ohitura hartuta, barazki tinbalak eta antzerako elaborazioak eskaini ohi ditugu gure jatetxean; eta otsailean, porru erreak gaztainekin izan dira protagonista.

Arrakasta ikusirik, zuek ere etxean egin ahal izan dezazuen, hona hemen gure errezeta. Gustuko izan dezazuela espero dugu. On egin! ■■■



Osagaiak (4 lagunentzat)

- 6 porru
- Tipula erdi bat
- Bi berakatz ale
- Apio txortan bat
- 2 azenario
- Piper gorri bat eta berde bat
- 100 g. gaztain fresko, zurituta
- Gatza, piper-hautsa eta perexila

Prestaketa

1. Barazkiak zuritu eta moztu; tipula, berakatz, apioa eta piperrak brunoise erara moztu. Azenarioak ilargi erditan, porruak tontortxoetan eta gaztainak laurdenetan.
2. Lapiko bat sutan jarri olioarekin eta barazkiak erregosten hasi, gogortasunaren arabera, ondorengo ordenean: berakatz, tipula, apioa, gaztaina, azenarioa, piperrak eta, azkenik, porruak.
3. Labea 180 gradutan berotu, eta barazkiak erdi erregosiak ditugunean labeko erretilu batean jarri.
4. Erretilua 180 gradutan beratu, barazkien goiko azala txigortu arte.
5. Gatza eta piper hautsa jarri, norberak bere gustuan.

MUSEO
del ÓRGANO

RESTAURANTE VEGETARIANO
JATETXE BEGETARIANO


Manuel Iradier 80, 01005, Vitoria-Gasteiz (Araba) - 945264048 - museodelorgano.com - @museodelorgano

Denbora-pasak

Marrazkia

TOKIEDER IKASTOLA - LH 5


Marrazki hau bukatu gabe dago. Falta den erdia bukatu behar duzue simetrikoki eginez.



Izena

TOKIEDER IKASTOLA - LH 5

Ea asmatzen duzun marrazkiak zer diren.



Onenetan onena, erdi-prezioaren erdi-prezioan

Zatoz Euskaltelera



500

MEGA



30GB

DEI
MUGAGAREAK

REPLAY
TB

FINKOA
DEI
MUGAGABEAK

**ORAIN,
BIGARREN MUGIKOR-LINEA
DOAN**



Kontratatu hemen:
EUSKALTELEUS | DENDAK | 900 840 243

[illegible]

100



AGENDA Martxoaren 6tik 12ra

Arabako Foru Aldundiak eta Gasteizko Udalak diruz lagundua.

Euskararen agenda

MUSIKA

AMURRIO Igor Arzuaga

Hasier Oleaga eta Victor Gomezen kolaborazioarekin.

Ostirala 6, 20:00etan, Amurrio antzokian.

AMURRIO Dupla

Xatiro taldearekin batera.

Ostirala 6, 22:00etan, Burubio aretoan.

HAURRAK

GASTEIZ 'Itsasoko sekretuak'

Irati eta Amaia abenturazaleen eskutik. 18-36 hilabete bitartean.

Ostirala 6, 17:00etan eta 18:00etan, Ariznabarra gizarte etxean.

LAUDIO 'Martinbertso'

Sorgin Zapatuak zikloaren barruan. Martinbertso egingo dute, eta ostean askaria eta eskulan saioa izango dira. *Larunbata 7, 17:30ean, Lamuza parkeko frontoi etxean.*

GASTEIZ 'Denboraren taupadak'

Patata Tropikala taldearen eskutik. 3-12 urte bitartean.

Larunbata 7, 18:00etan, Ibaiondo gizarte etxean.

BERTSOLARITZA

ARAMAIO Kuadrilla Artekoka

Bigarren finalaurrekoa. Lautadako ahuntzak (Zalduondo) VS Izenbakuek taldeak arituko dira.

Larunbata 7, 19:00etan, Sastiñan.



RUPER ORDORIKA

GASTEIZ Ruper Ordorika

Ruper Ordorikak kontzertua eskainiko du Arkaitz Miner (gitarra, mandolina, biolina), Fernando Neira *Lutxo* (baxua, kontrabaxua) eta Hasier Oleagarekin batera (bateria). Hogei disko baino gehiagorekin, sasoi desberdinetako kantak eskainiko ditu.

Osteguna 12, 20:30ean, Principal Antzokian.

HITZALDIA

GASTEIZ 'Idazlerik sekretuena'

Anjel Lertxundiren eskutik.

Itzulpengintzari buruzko *Itzuliz usu begiak* saiakera liburua izango du solasgai.

Asteazkena 11, 19:00etan, Pilar gizarte etxean.

BESTELAKOAK

GASTEIZ 'Izenik gabe 200x133'

Jose Luis Zumeta margolariaren sorkuntza lanari buruzko dokumentala. Enara Goikoetxeak eta Monika Zumetak zuzenduta.

Asteazkena 11, 18:00etan, Oihanederren.

AMURRIO 'Ekosistemaren kartografia berriak' erakusketa

Emakume sortzaileen erakusketa eta aurkezpen ekitaldia. Katixa Agirre, Birkite Alonso, Haizea Barcenilla eta Uxue Alberdirekin.

Ostirala 6, 18:00etan, La Casonan.



GASTEIZKO MINTZALAGUNA **5**

Sukaldastatu 10€

19:00

Beheko Sua Elkarte

Gastronomikoan

IRAKURLE KLUBA **5**

Munduko tokirik
ederrena

Iñigo Aranbarri

19:00 Ignacio Aldekoa

Kultura Etxean

GASTEIZKO MINTZALAGUNA **5**

Lindy Hop lantegia
IKAk antolatuta 3€

20:00

Jungle Beat

Fermin Lasuen 7 behea

BEGI BELARRI **11**

Izenik Gabe

200 x 133

18:00

Oihaneder Euskararen

Etxean

GASTEIZKO MINTZALAGUNA **11**

Postre Begetario
tailerra

19:00

Museo del Organo

Jatetxean

GASTEIZKO MINTZALAGUNA **12**

Lindy Hop topaketa
IKAk antolatuta

19:30

Jimmy Jazzen

MINTZA IBILALDIA **15**

Ibiltaria
eskulturatik
abiatuta

10:00 -12:00

IGANDEAK JAI **15**

Tor Magoa

17:30

Ikasbidea Ikastolan

PARRAL EMANALDIA **24**

Irazi

20:30

Parral Tabernan

www.geuelkartea.eus

ANTOLATZAILEAK **geu** ELKARTEA



ERAKOZU SARRAIAZ
ERAKOZU SARRAIAZ



LAGUNTZAILEAK **TALEA**



KATERIK GABE KATEAN

Ezinbesteko katebegia gara
aurrera egiten jarraitzeko



MARTXOAK

Emakumeen Nazioarteko Eguna



MARTXOAK

Emakumeen Nazioarteko Eguna



2020-2021ko martxoaren 8a